

ITSASONDOKO GAZTELEKUKO ARAUTEGI OROKORRA

(Modu autonomoan erabiltzeko)

DESKRIBAPENA

Gaztelekua Itsasondoko nerabeei zuzenduriko espazioa da. Espazioa hau hezitzaileak daudenean erabili daiteke edo baita modu autonomoan ere. Hezitzaileekin, aisialdirakohainbat ekintza proposatzen dira eta hezitzailearen laguntzaz edo modu kolektibo ez-gidatu batean, aurrera eramaten dira. Maila indibidualean autonomia eta erantzukizuna garatuz, komunitate mailan aritzeko gaitasunak eskuratzea da helburua eta gazte hauek herriko partehartzaile bihurtzea.

Esan bezala, espazioa modu autonomoan ere erabili daiteke. Lagunartean egon, hezitzaileekin hasitako lanketei taldean jarraipena emateko eta herri bizitzara lotzeko bestelako dinamikak burutzeko. Modu autonomoan erabili nahi izanez gero arautegi hau bete beharko da:

NORENTZAT

Gaztelekua 14 urtetik aurrera erabili ahalko da modu autonomoan (14 urteak beteak edo urte horretan bete behar dituzte)

SARBIDEA

Bertara sartu ahal izateko honakoa izan beharko dugu kontuan:

- Ateko sarraila **mugikor bidezko aplikazioz irekitzea lehenetsiko** da. Mugikorra ez dutenen kasuan txartel bidezko sarbidea emango da.
- **Sartzen den pertsona guztiek aplikazio bidez (txartela bidez aplikazioa ez duenak) ireki behar dute atea.** Aplikazioa pasa, atea ireki eta itxi egin behar da atzetik datorrenak aplikazioa pasa dezan. Horrela, erabiltzaile guztiak erregistratuak geldituko dira.
- 14 – 16 urte bitartekoak **gurasoen baimena agiria beteta** bakarrik sartu ahalko dira gaztelekura. Norberaren mugikor zenbakiari irekiera lizentzi bat esleituko zaio eskaera egiten dutenean.
- 14 – 16 urte bitartekoak mugikorrik ez badute, **gurasoen baimena agiria beteta egin ahalko dute eskaera**, horrela irekiera txartela emango zaio (mugikorra izan bezain laster jakinarazi beharko du irekiera mugikor bidezko lizentzi bat emateko)
- 16 urtetik aurrera espazioan sartzeko eskaera norberak egin dezake.

Nola egingo dugu sarbide eskaera?

- Mugikor bidezko irekiera lizentziak 3€ko kostua izango du urtero. Udal tasa gisa onartuko da eta helbideratuta kobratu daiteke. Txartelaren kostua 3 €takoa da (behin



ordainduko da)

- Txartelaren eskaera udalean egin beharko da, aurrez aurreko arreta ordutegian (astelehenetik ostiralera 8:30 – 14:00) edo emailuz eskatuz eskaera orria beteta eta sinatuta bidaliz. Txartela udaletxean jaso beharko da (titularrak ezin badu, gurasoek jaso dezakete)
- Txartela eskuratzeko eskabide orria bete beharko da eta horretarako eskatzailearen eta beharrezkoa den kasuetan gurasoen datuak jarri beharko dira (izen-abizenak, DNI zenbakia, posta elektronikoa, telefono zenbakia...).

ESPAZIOA ERABILTZeko ARGIBIDEAK

Ordutegia eta erabilera eguna

Urtean zehar orohar, ordutegi hau izango da:

- Astelehenetik ostegunera: 17:00 – 20:00
- Ostiraletan: 17:00 – 20:00 | Hezitzaileekin
- Ostiraletan: 20:00etatik eta gehienez 01:00ak arte. 22:00etatik aurrera isiltasuna.
- Larunbatetan: 11:00etatik eta gehienez 01:00ak arte. 22:00etatik aurrera isiltasuna.
- Igandetan: 11:00etatik gehienez 22:00ak arte.
- Jaiegunetan: Larunbatetako ordutegi berdina izango da.

Opor garaietan, berriz, honako ordutegia izango da (aste santuko bi opor asteak, gabonetako bi opor asteak eta ekainaren 15etik- irailaren 15era) :

- Egunero: 11:00- 01:00

Erabilera partekatua

- Eskola berriko obrak iraun bitartean gaztelekuan hainbat ikastaro eskainiko dira, hori dela eta, ikastaro horiek dauden bitartean ezingo da gaztelekua erabili. Ikastaro hauen ordutegia gaztelekuko atean jarritako egutegian zehaztuko dira.
- Gaztelekuko nerabeak eta hezitzailea ostiraletan egoten dira bertan, 17:00etatik 20:00etara (tarte horretan ezingo da modu autonomoan gaztelekua erabili, salbuespenak udalak erabakiko ditu)



- Gaztelekua erabiltzeko lehentasuna udalak izango du.

Erabilera arauak

- Erabilpenak irauten duen denbora horretan aretoaren erantzukizuna erabiltzailearena izango da bertan daudela edozein kalte gertatuta ere. Erabilpena amaitu ondoren, lokala jasota eta txukun utzi behar da. Erabilpena egiterakoan antzemandako edozein gertaeraren berri udalari jakinarazi behar zaio.
- Gaztelekuan ezingo da erre ezta alkoholdun edaririk kontsumitu.
- Gaztelekuan inor ez bada gelditzen kanpoko atea itxita geratzen dela bermatu beharko da.
- Txartel erabiltzaileak txartela galduz gero, lehenbailehen horren berri udaletxean eman beharko da. Txartel berriak suposatzen duen kostua erabiltzailearen gain izango da.
- Mugikor bidezko sistemak huts egiten badu udalari jakinaraziko zaio.

Erabilera okerraren aurrean udalak edonori kendu diezaioke txartela.

Bizilagun, guraso edota herritarrak kexatzen badira neurriak hartu beharrean izango da udala.

GARBIKETA

- Erabiltzailea bera arduratu beharko da eguna bukatzean espazioa txukun uzteaz eta dagokionean sortutako zaborra ateratzeaz. Garbitasuna mantentzeko behar diren garbigarriak udalak jarriko ditu.
- Egunerokotasunean, Gaztelekuko erabiltzaileak arduratu beharko dira zaborraren gaia kudeatzeaz.
- Hamabostean behin udaleko garbitzaileak pasako dira Gaztelekua garbitzera, baina **garbitasuna mantentzea erabiltzaileen ardura izango da.**

MANTENUA / HORNIKUNTZA

- Materiala falta bada edo iradokizunen bat badago, udalean abisatu beharko da.
- Behar diren konponketak eskaera ofizial bidez egingo dira udaletxean.

ARAUHAUSTEAK ETA ISUNAK

Arauhauste arinak:

- Erabiltzailearen batek garbiketa arauak betetzen ez baditu behin.
- Ikastaroren bat dagoenean eta erabiltzeko debekua dagoenean gaztelekuan egotea.



- Atea aplikazio bidez ez irekitzea (hau da aplikazioa erabili gabe sartzea) behin.

Isuna:

18 urtetik gorako erabiltzaileentzat:

Arauhauste arinen kasuan erabilpen lizentzia kenduko zaio 6 hilabetez. (espazioa erabiltzeko debekua ezarriz)

Adin txikikoentzat:

Arau-hauste arinen kasuetan 5 orduko komunitatearentzako lanak aplikatu ahal izango dira, adingabeak uler dezan arauhaustea egitateak ondorio batzuk dituela.

Lan hauek udalak zehaztuko ditu eta zerbitzu hauetara bideratuko dira: Udal- instalazioak mantentzeko, garbitzeko, lorategiak, parkeak, espazio publikoak eta altzariak mantentzeko edo adinekoei edo desgaitasunen bat duten pertsoneri laguntzeko lanak izango dira.

Lan hauek erabiltzaile, tutore eta udalaren artean adostuko dira. Beti erabiltzailearen eskolaz kanpoko orduetan egingo dira, ez dira ordainduko eta ez dira zamalanak edo adint xikikoaren osasuna kaltetu dezaketen lanak izango.

Arauhauste larriak:

- Arauhauste arinen bat bi aldiz errepikatzea.
- Gaztelekuko dinamika larriki kaltetu dezakeen bestelako ekintzak burutzea: altzariak puskatzea, erabiltzaileen aurkako irainak... eta udalak dinamika larriki kaltetzen duen ekintza gisa baloratzen dituen bestelakoak.

Isuna:

18 urtetik gorako erabiltzaileentzat:

Arauhauste larrien kasuan erabilpen lizentzia kenduko zaio erabiltzaileari urte betez (espazioa erabiltzeko debekua ezarriz) eta 150€ko isuna ordainaraziko da.

Arauhaustea gaztelekuko altzariak etab. puskatzea edo lapurtzea bada (Gaztelekuko dinamika larriki kaltetu dezakeen bestelako ekintzak burutzea) puskatu edo lapurtutakoaren kostua ordaindu beharko du erabiltzaileak.

Adin txikikoentzat:

Arau-hauste arinen kasuetan 15 orduko komunitatearentzako lanak aplikatu ahal izango dira, adingabeak uler dezan arauhaustea egitateak ondorio batzuk dituela.

Lan hauek udalak zehaztuko ditu eta zerbitzu hauetara bideratuko dira: Udal- instalazioak



mantentzeko, garbitzeko, lorategiak, parkeak, espazio publikoak eta altzariak mantentzeko edo adinekoei edo desgaitasunen bat duten pertsoneri laguntzeko lanak izango dira.

Lan hauek erabiltzaile, tutore eta udalaren artean adostuko dira. Beti erabiltzailearen eskolaz kanpoko orduetan egingo dira, ez dira ordainduko eta ez dira zamalanak edo adint xikikoaren osasuna kaltetu dezaketen lanak izango.

Honez gain, Udalak ahala baloratuko balu (arahaustearen arabera) Gaztelekua erabiltzeko debekua ezarri diezaioke hilabete batez.

Arauhaste oso larriak:

- Arauhauste larriak bi aldiz errepikatzea.
- Gaztelekuko dinamika larriki kaltetu dezakeen bestelako ekintzak errepikatzea edo erabiltzaileen kontrako eraso fisikoak egitea eta udalak dinamika larriki kaltetzen duen ekintza gisa baloratzen dituen bestelakoak.

18 urtetik gorako erabiltzaileentzat:

Isuna: Arauhauste larrien kasuan erabilpen lizentzia edo txartela kenduko zaio erabiltzaileari betiko eta 300€ko isuna ordainaraziko da.

*** Erabiltzaileak sarbidea berriz izan nahi badu eskaera egin beharko du, gutxienez urte eta erdi pasa ondoren eta udalak baloratuko du eskaera.

Adin txikikoentzat:

Arau-hauste arinen kasuetan 25 orduko komunitatearentzako lanak aplikatu ahal izango dira, adingabeak uler dezan arauhaustea egitateak ondorio batzuk dituela.

Lan hauek udalak zehaztuko ditu eta zerbitzu hauetara bideratuko dira: Udal- instalazioak mantentzeko, garbitzeko, lorategiak, parkeak, espazio publikoak eta altzariak mantentzeko edo adinekoei edo desgaitasunen bat duten pertsoneri laguntzeko lanak izango dira.

Lan hauek erabiltzaile, tutore eta udalaren artean adostuko dira. Beti erabiltzailearen eskolaz kanpoko orduetan egingo dira, ez dira ordainduko eta ez dira zamalanak edo adin txikikoaren osasuna kaltetu dezaketen lanak izango.

Honez gain, Udalak ahala baloratuko balu (arahaustearen arabera) Gaztelekua erabiltzeko debekua ezarri diezaioke 3 hilabetez.



ITSASONDOKO
UDALA



BAJAK

3€ tasa urte hasieran kobratuko da kontu korrontetik. Urte osoko erabilpen baimena emango du tasa horren ordainketak. Erabiltzaileak Gaztelekua erabiltzen jarraitzeko asmoa ez badu, udalean jakinarazi behar du. Baja eskaera eginda lizentzia beste erabiltzaile bati pasako zaio. Urtero berrituko da (helbideratuz gero, automatikoki) erabilpen lizentzi hau.



GAZTELEKUA MODU AUTONOMOAN ERABILTZEKO ESKABIDEA

Erabiltzaileak 14- 16 urte bitarte baditu edo mugikorak ez badu:

Erabiltzailearen izen abizenak:	
Erabiltzailearen NAN:	
Gurasoaren izen abizenak:	
Gurasoaren NAN:	
Erabiltzailearen Telefono zenbakia:	(telefono honi emango zaio sartzeko lizentzia)
Gurasoaren Telefonoa:	
Erabiltzailearen Posta elektronikoa:	
Gurasoen Posta elektronikoa:	
Kontu korrontea:	(urte hasieran 3€ kobratuko dira, urteko erabilpenerako)

1. ITSASONDOKO GAZTELEKUKO SARBIDEA ESKATZEN DUT.

2. ALDI BEREAN, ARAUTEGIAN AIPATURIKO ARAUAK BETETZEKO KONPROMISOA HARTZEN DUT.

Itsasondon, _____ ko _____ aren _____ an

GURASOEN SINADURA

ERABILTZAILEAREN SINADURA



GAZTELEKUA MODU AUTONOMOAN ERABILTZEKO ESKABIDEA

Erabiltzaileak 16 urte beteta baditu:

Erabiltzailearen izen abizenak:	
Erabiltzailearen NAN:	
Gurasoaren izen abizenak:	
Erabiltzailearen Telefono zenbakia:	(telefono honi emango zaio sartzeko lizentzia)
Erabiltzailearen Posta elektronikoa:	
Kontu korrontea:	(urte hasieran 3€ kobratuko dira, urteko erabilpenerako)

3. ITSASONDOKO GAZTELEKUKO SARBIDEA ESKATZEN DUT.

4. ALDI BEREAN, ARAUTEGIAN AIPATURIKO ARAUAK BETETZEKO KONPROMISOA HARTZEN DUT.

Itsasondon, _____ko _____aren _____an

ERABILTZAILEAREN SINADURA